

USURBIL / Sutegi eraikinaren inaugurazioa izango da bihar eguerdian

Herritarrek eraikinaren barruko gune desberdinak ikusteko aukera izango dute inaugurazio ekitaldian

JOSU ARANBERRI/ USURBIL. DV. Herritarrek Sutegi eraikin berria ikusteko aukera izango dute bihar goizean. Izan ere, atzerapen dexterekin bada ere, bihar izango da garai batean 'misericordia' edo 'Udarregi zaharra' deitutako eraikinaren eraberritze ondorengo inaugurazio ekitaldia eta bertaratzen direnek eraikin berria barrutik ikusteko aukera izango dute goizean zehar.

Udalak ekitaldi xumea iragarri du bihar goizerako. Eguerdiko 12:00etan hasiko da ekitaldia eta inauguratzeko ekitaldi sinboliko bat egingo da diskurtso eta guzti. Ondoren, Sutegira gerturatzeko direnak eraikin berri honetan kokatu diren liburutegi, ludoteka, fonoteka, bideoteka, auditorio eta bestelako zerbitzu guneak lehen aldiz ikusteko aukera izango dute.



Umeentzat bideratutako liburutegia edo ludoteka. [JOSU ARANBERRI]

Eraikin berriaren gune desberdinetan herriko agintari nahiz udaleko langileak izango dira leku bakoitzaren nondik norakoak erabiltzaileei azaldu asmoz. Horrez gain, dantzariak, musika etab. ere izango dira Sutegiren inaugurazio ekitaldi honetan eta bertaratzen direnentzat hamaiketakoa ere aurreikusi dute.

Inaugurazio ekitaldia bihar izango bada ere, erabiltzaileek astelehenean izango dute udal liburutegi berria erabiltzeko aukera. Orain arte udaletxean zegoen liburutegiaren ordutegi bera izango du, arratsalde 16:00etatik 19:30etara hain zuzen ere. Asteazkenetan goizez irekita egongo da eta larunbatetan bi astetik behin ere bai. Auditorioa, berriz, alster estreinatuko dute.